



Usurbilgo Udala

Esp.zkia: ID.06 / 2019 - 0173

ALKATEAREN DEKRETUA

XABIER ARREGI IPARRAGIRRE Usurbilgo Udaleko ALKATEAK, 7/1985 legearen 21.1.g) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hau

IKUSIRIK

2019ko maiatzaren 30eko 2019-00496 dekretuaren bidez, Usurbilgo udalean lan kargari aurre egiteko operario plaza bitarteko funtzionarioz betetzeko hautaketa prozesua martxan jartzea erabaki zen. Apuntatzeko epea ekainaren 7an amaitu zen.

Eta aipatutako guztia ikusirik honako hau,

ERABAKI DUT

LEHENENGOA.- Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. 1. eranskin bezala dago zerrenda. Interesatuak 2 egun balioduneko epea izango dute behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko zerrenda webgunean argiratzen den hurrengo egunetik hasita.

BIGARRENA.- Azterketa praktikoaren eguna, ordua eta lekua zehaztea:

- Ekainaren 18an Zanziura Kalea 5, Atallu industrialdean, goizeko 8.00etan hasita. Ikusi hautagai bakoitzaren ordutegia 2. eranskinean. Euskara frogara, azterketa praktikoa bukatu eta jarraian izango da.

HIRUGARRENA.- Epaimahaiko kideak honako hauek izendatzea:

Mahaiburua:

- Aitor Eleta, Udal Brigado burua.

Mahaikideak:

- Ibon Goikoetxea, Nekazaritza eta Ingurumen teknikaria.
- Josu Alkorta, Udal Brigadako operarioa.
- Imanol Aizpurua, udaleko Lorezain laguntzailea.

Idazkaria:

- Iñigo Azpiroz, Zerbitzu saileko administraria.



Usurbilgo Udala

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

ERREKURTSOAK

- Erabaki honen aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeko errekurtsoa aurkez dezake urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera Alkatetzaren aurrean. Eskatzaileak hilabeteko epea dauka horretarako: erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrerako hilabete osoa.

- Bestela, erabaki hau berraztertzeko eskatu ordez, edo berraztertzeko errekurtsoaren erantzunaren aurka joko balu, zuzen zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake. Interesatuak bi hilabeteko epea dauka horretarako, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsoa aurkeztekotan Gipuzkoako Kontentzioso-Administratiboetarako Epaitegira jo behar da. Bestaldetik, birjarpen errekurtsoa erantzun gabe utziko balu Administrazioak, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, berariazko araudiaren arabera presuntziosko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

Honela jasota gera dadin behar diren ondorioetarako, agindu eta izenpetzen duena Alkateak, eta nik, Idazkaria naizen honek, ziurtatua. Usurbilen,

ALKATEA
Xabier Arregi Iparragirre

Nire aurrean
IDAZKARIA
Irantzu Arrizabalaga Gainza